

(2013ko abendua)

GUZTION ONGIZATEA

Ez dira sasoirik egokienak guztion ongizatea nabarmentzeko!

Adam Smithek –ekonomia kapitalistaren aitak-, gizarte ongizaterik altuena, gizabanako bakotxak, berekoitasunez, bere ongizatea, eta hori bakarrik, lortzen saiatzen danean sortzen dala inoan. Indibidualismo hau gizarte eta politika bizitzaren oinarriak erabat ahuldu daitezkezan benetako kultura bihurtu da. "Nork bere kurutzearoan behar"; "bakotxa beretzako, Jaungoikoa danentzako"; "karidatea, izurriaren iturri"; "negozioak, negozio dira"..., esamoldeek islatzen dabe herri kulturaren nagusi dan pentsamoldea.

Gizakiaren duintasunaren oinarriagaz batera eta hari estu lotuta, EDSak guztion ongizatearen kontzeptua garatzen dau, gizabanakoen eta alkartearen jardueraren helburutzat hartuz.

irakurketa eta alkarrizteterako gida

1. Zure bizigiroetan, zer ulertzen da "guztion ongizateaz" Badau zerikusirik EDSak horren inguruan ulertzen dauanaz? Gaurko gizartean, gauzatu ezin daiteken utopia ete da?



2. Hainbat bider, guztion ongizatea ez dator bat, automatikoki, gehiengoaren interesagaz. Zer deritxazu?



3. Zer suspertu beharko litzateke gizarte, politika, sindikatu, kultura... erakundeetatik "guztion ongizatea" nagusitu daiten?





BAINA, ZER DA "GUZTION ONGIZATEA"?


"Guztion ongizatea", guztion erantzukizuna da. Berau bilatzea gizakiaren borkazitorik zintzoena da. Eginkizun gatxa da, besteen ongizatea norbere ongizatea balitz lez bilatzea eskatzen daualako. Nork bere interesak besteen beharrietara egokitu behar ditu. Baina ez gara gizabanakook bakarrik guztion ongizatearen arduradunak. Gizarte antolaketarako era guztiek -familia, enpresa, eskola eta aukokide, sindikatu, politika, kultura... alkarteak-, legitimitatea eta zentzuna izango badabe, guztion ongizatea eratzeko, gizakiok, gizaki lez garatzeko behar doguna emoteko bide izan behar dabe. Alkarte zabalagoa, alkarte politikoa be ezinbestekoa da. Holan, Estaduak, bere erakunde guztiakaz, funtsezko erantzukizuna dauka: guztion ongizatea zaindu gizarte bititza osoan.

GUZTION ONGIZATEAREN HIRU EUSKARRI NAGUSIAK

1.- Gizakiaren duintasuna, eskubideak eta betebeharrak autortu.

2.- Ondasunen erabilera unibersala ordenamentu etiko-sozial osoaren oinarritzko eta funtsezko printzipio lez.

3.- Gizakiaren izaera soziala autortu ezin dau-eta isolatuta bizi, bestekazko hartu-emonean baino. "Gizakiaren izaera sozialak dakar pertsonaren garpena eta gizartearen beraren hazkundera bata bestearen mende izatea" (GS 25).



TXIROTUEN LEHENTASUNA

Guztion ongizatea ez da ez interes partikularren batuketa ezta gehiengoaren interesa be. Dalako ongizate horrek beharrietan baloratzea eta interes partikularren bateratzea eskatzen dau, gizaki ororen duintasunaren eta eskubideen ulermen zuzenaren arabera. Zuzentasunez eta ekitatez jardute aldera, agintariei makalenez, euren eskubideak defendatzeko eta jagokezan oinarritzko interesak lortzeko egoera txarragoan dagozanez arduratzeko eskatu behar jake. Guztion ongizateak, beti, lehenengo eta behin, gizakien oinarritzko beharrietan -elikagaiak, etxebizitza, segurtasuna, osasuna, jantzia, lana, askatasun zibila- lehentasuna emotea eskatzen dau. Horreek barik ez dago giza bizitzarik eta ezin da gizarte zuzenik egin. Zuzenbidezko estadia ahalbideratzeak lehentasuna dauka ongizatearen estadia ezartzearen aurretik.



ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

Pacem in Terris (PT) Bakea lurrean

Entziklika egian, zuzentasunean, maitasunean eta askatasunean oinarritu behar dauan herri guztien arteko bakeari buruz. Joan XXIII.a.

1963

53. Gizabanako eta bitarteko talde guztiek guztion ongizatea lortzen lagundu behar dabe. Hortik funtsezko ondorioa ateraten da: guztiek besteen beharrezanetara moldatu behar dabezala euren interesak, eta euren ondasun edo zerbitzuak agintariak, arau zuzenen arabera eta aginterako jarritako jarduera eta mugak errespetatuz, ezarri dabezan helburuetara zuzendu behar dabezala. Agintariak, beraz, bikaintasun formal juridikoa izateaz gainera, oso-osorik gizartearen onera zuzenduta dagozan edo horretara bideratu gaikiezan xedapenak agindu behar dabez.

56. Agintariak, guztion ongizatea benetan guztion onerako izan daiten ahalegindu behar dabe, gizabanako edo gizatalde jakin bategaitik ezelango zaletasunik erakutsi barik... Leon XIII.ak ezartzen dauanez: Ezin da onartu, ezelan be, aginte zibilak norbaiten edo norbaitzuen interesaren alde egitea, guztion ongizaterako eratuta dagoalako. Halanda be, batzuetan, zuzentasunez eta ekitatez jardungo badabe, agintariak aparteko arreta jarri beharko dabe herritarrik makalenei, euren eskubideak defendatzeko eta euren bidezko interesak bermatzeko egoera txarragoan dagozanei laguntzeko.

Gaudium et Spes (GS) Poztasuna eta itxaropena Vatikanoko II. Kontzilioa

Eleiza gaurko munduan konstituzino pastorala. Paulo VI.a.

1965

74. Komunitate politikoa guztien onerako dago, hortxe du bere justigikazio eta zentzu osoa eta hortik sortzen da hark jatorrizkoa eta bere-berea duen eskubidea”.

84. Garai honetan, guztien on unibertsa egoki bilatzeko eta modu eragingarriagoan lortzeko, lurbira osoko herritar eta herri guztien artean elkarrekiko mendekotasun-lotura estuak gehituz doazenean, beharrezkoa da nazioen komunitateak eman diezaion bere buruari oraingo egitekoei dagokien ordenamendua, batez ere oraindik miseria onartezina jasaten duten herrialde ugari haiei begira.

Eleizaren Doktrina Sozialaren idazkaik (EDSI)

“Zuzentasuna eta Bakea” Pontifize Batzordea.

2004


169. Gizataldeen eta gizabanakoen ondasun partikularren buztartze zuzena aginte publikoaren eginkizunik labainenetakoa da. Estatu demokratikoan, non erabagiak normalean herri borondatearen ordezkarien arteko gehiengoagaz hartzen diran, gobernu-erantzukizuna jagokenek herrialdean guztien ongizatea suspertu behar dabe, ez gehiengoaren argibideen arabera bakarrik, alkarte zigileko kide guztien –tartean gitxiengoan- ongizate eraginkorren ikuspuntutik baino.



OTOITZ EGITEKO

Lukas 9, 12-17.

"Eguna iluntzen hasia zen. Hamabiak hurbildu eta esan eutsen Jesusi: «Bialdu eizu jentea inguruko auzo eta baserrietara, ostatu eta jan bila joan daitezcan, hemen oso aparte gagoz-eta.» Baina harek erantzun eutsen: «Emon zeuek jaten.» Hareek, orduan: «Ez daukagu bost ogi eta arrain bi besterik, jente honentzat guztiarentzat jatekoa erostera geu joaten ez bagara behintzat.» Bosten bat mila gizon ziran. Jesusek esan eutsen ikasleei: «Eserarazo berrogeta hamarnaka.» Halan, danak eserarazo ebezan. Hartu ebazan Jesusek bost ogiak eta arrain biak, eta, begiak zerura jasota, bedeinkazinoa esan, ogiak zatitu eta ikasleei emon eutsezcan, jenteari eskaintzeko. Asetzeraino jan eben danek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete ebezan".



"EMOIGUZU SENIDETASUN-SENA"

- Zuri, Aita on horri, anai-arreba egiten gaituzun horri,
senidetasun-sena eskatzen deutsugu.

- Aldatu gure bihotzak,
onartzeko eta parkatzeko gauza izan gaitезan.
Gizon eta emakume bakotxarengan anai eta arreba,
Zu maitatzeko tenplu bizia, ikusi daigula.
Emoiguzu alkarte-sena,
anai-arrebakaz mahaia eta hitza alkarbanatu daiguzan.

- Senidetasunaren legamia izan gaitезala,
bakarrik egoteaz nekatuta dagozan gizon eta emakumeen artean;
zure agintzariaren zeinu apal izan gaitезala;
erreinua, banketearen antzekoa,
non danak konbidatuta eta onartuta egongo diran,
gaurdanik eta betirako.

- Zure ebanjelioak aske eta anai-arreba egiten gaitu.
Horregaitik ez dogu esklabo eta nagusien,
txiro eta aberatsen arteko banaketa bidebakorik onartzen.
Jesusen askapena bizi gura dogu:
batzuk miseriatik altxatzen ditualako,
besteak pribilegioetatik botaten ditualako.

- Gure talde eta alkarteetan,
senide-zuzenketa, salaketa eta parkamena
onartzen doguz,
benetako askapenerako.
Adiskidetzaille izan gaitезala,
zure bake eta senidetasunerako tresna.

- Isuri zure Espiritua gure gainera,
etsaiarengana hurreratzeko gauza,
maitasunagaitiko aldeak gaitезeko gauza,
zauritutako urguiluari uko egiteko gauza,
gure ideiak inposateko irrikari uko egiteko gauza
egin gaizan.

- Edonon bizita ere,
mahai beraren inguruan jarri gaitезala,
alkarregaz egia bilatzeko,
alkarregaz adiskidetzeko.